

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

#### **“San Bartolomé” izeneko VI-10.007 ehiza esparrua berritzea**

Administrazio honek ebatzi du VI-10.007 ehiza esparrua berritzeko espedientea abiaraztea. Ehiza esparruaren izena “San Bartolomé” da eta haren titularra, eragindako partikularren ordezkarietan, Lapuebla de Labarca Udala.

Ehiza esparru horretan sartu dira esparruaren eremuaren barruko lurzati guztiak, nola publikoak hala pribatuak, eta horren berri ematen da iragarki honen bidez, eragindako lursailen jabeek baimena eman ahal izateko; hain zuzen ere, martxoaren 17ko 2/2011 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko ehizarenak, 21. artikuluan aipatzen duen baimena eman ahal izateko. Ezarritako epean beren finkak eranstearen kontra daudenik adierazten ez badute, ulertuko da isilbidez baimena ematen dutela finka horiek eransteko. Hamabost egun balioduneko epea izango da baimena emateko edo isilbidezko baimena gauzatutzat jotzeko, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Lapuebla de Labarca, 2018ko uztailaren 24a

*Alkatea*

**MAIDER MURILLOTREVIÑO**